

## GURE IDEIA

Enpresa honen ideia, Desserto enpresa interneten bidez ezagutu genuenean hasi zen. Asko interesatu zitzaigun bere proposamena eta konturatu ginen guk ere halako pausuak jarrai zitzakegula gure herrian. Modan berrikuntzarik eza zegoen ikusi genuenean bururatu zitzaigun moda berriak larru ekologikoetara egokitzea, animalirik ez kaltetzen.

Gure enpresa izaera ekologikoa izatea erabaki dugu, ekologia guztion ahotan dagoelako eta gure produktua nobedadea izatean erakargarria izango delako. Material naturalekin egindako eguneroko produktuak salduko ditugu, kaktusez egindako arropa eta beste osagarriak, hain zuzen ere. Modu fisikoan baita online bidez salduko ditugu. Produktuak 20-40 urteko emakumeentzat bideratuta eta espezializatuta egongo dira batez ere. Kaktusez egindako arropa produktu berria da eta berritzailea izatean, pentsatzen dugu erraz salduko dela hasiera batetik.

